



AGINDUA, INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA ALDEZ AURREKO ONESPENA EMATEA ARKAMU-GIBILLO-ARRASTARIA / ARKAMO-GIBIJO-ARRASTARIA (ES2110004) KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA (KBE) ETA GOROBEL MENDILERROA / SIERRA SÁLVADA (ES0000244) HEGAZTIENTZAKO BABES BEREZIKO EREMUA (HBBE) KONTSERBATZEKO HELBURUAK ETA ARAUDIA JASOTZEN DITUEN DOKUMENTUARI

2010eko irailaren 6ko Aginduaren bidez, eskualde biogeografiko atlantikoko kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta bi eskualde biogeografikoetako (atlantikoa eta mediterranea) kontserbazio eremu bereziak izendatzeko Dekretua onartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion; horien artean, BGL ES2110004 Arkamu-Gibillo-Arrastaria / Arkamo-Gibijo-Arrastaria eta HBBE ES0000244 Gorobel Mendilerroa / Sierra Sálvada daude.

Prozedura hasi eta beharrezko azterlanak egin ondoren, ondorioztatu da Arkamu-Gibillo-Arrastaria / Arkamo-Gibijo-Arrastaria eremuak eta Gorobel Mendilerroa / Sierra Sálvada eremuak dituzten tipologia eta kasuistika bereziak direla eta, mendialde horretarako berriazko dekretu-proiektua egin behar dela

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea betetzeko asmoz, dagoeneko dekretu-proiektu egituratua egin denez, eta hori bat datorrenez 2010eko irailaren 6ko Aginduaren planteamenduekin, bidezkoa da dekretu hori onartzeko beharrezko izapideekin aurrera egitea. Hala ere, aurretiaz, hasierako agindu horien ostean ordenamendu juridikoan txertatutako arau-berrikuntza bat sartu dela nabarmendu beharra dago, duten garrantziarengatik kontuan hartu behar baita Natura 2000 Sareko eremuak izendatzeko dekretuak egin eta onartzeko prozesuan.

1/2010 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legean egindako aldaketari esker, Natura 2000 Sarea naturagune babestutzat jotzen da. Geroago, 2/2013 Legeak aldaketa berria ekarri zuen eta hori Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan jasotzen da. Azken horren 22. artikuluan honako hau ezartzen da:

1. - Eusko Jaurlaritza izango da Batasunaren garrantzizko lekuak proposatuko dituena, eragindako herri-administrazioen eta sektore sozial zein pertsona interesdunen parte-hartze egiazko eta eraginkorra ziurtatuz prozeduran. Aukeraketa hori 92/43/EE Direktibaren III. eranskinean datozen irizpideetan eta dagokion informazio zientifikoan oinarrituta egingo du

2.- Natura 2000 Sareko lekuak izendatzeko prozedurek eragindako herri-administrazioen zein pertsona interesdunen parte-hartze egiazkoa eta eraginkorra bermatuko dute.

3.- Txostenak, bere tramitazioaren hasierako faseetatik hasita, memoria ekonomiko bat izango du, zeinak espresuki jasoko dituen 92/43/EE Direktibaren 8.

artikuluaren jasotako baterako finantzaketa komunitarioaren arabera beharrezkotzat hartzen diren aurreikuspenak

4.- Kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremuak (HBBE) izendatzeko dekretuek halaber beharrez izan beharko dituzte honako hauek: lekuaren eta bere mugaketaren kartografia, izendapena arrazoitzen duten Batasunaren intereseko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak, horien kontserbazio-egoerari buruzko balorazio bat, lekuaren kontserbazio-helburuak eta jarraipen-programa bat.

5.- Kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta hegaztien babeserako eremu bereziak (HBBE) izendatzeko dekretuek kontuan hartuko dituzte Eusko Jaurlaritzak eremu horiek kontserbatzeko sortutako arauak. Eusko Jaurlaritzak eremu horiek kudeatzeko jarraibideak eranskin gisa argitaratzeko agindua emango du.

Lurralde historikoetako foru-organismoek kudeaketa-jarraibideak onartuko dituzte, kontserbazio-helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio-egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak. Plan horiek bereziki aintzat hartu beharko dituzte azalera osoa zein bere lurzorua zati handi bat leku horietan daukaten udalerrien beharrak. Baldintza horien arabera egingo diren jarraibideak Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailari bidali beharko zaizkio, dagokion izendatze-dekretuaren eranskin gisa argitaratu ditza.

6.- Kontserbazio bereziko eremuek (KBE) eta hegaztien babeserako eremu bereziek (HBBE) natura-parkeekin bat egingo balute, horiek izendatzeko dekretuek 18. artikulua ezarritakoa kontuan izan beharko dute.

Horregatik, horri guztiari jarraiki, honako hauek bereizi behar dira: batetik, Eusko Jaurlaritzaren eskumena dago; horren bitartez, eremu horien izendapena onartzen du, baita horren kartografia, izendapena arrazoitzen duten Batasunaren intereseko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak, horien kontserbazio-egoerari buruzko balorazio bat, lekuaren kontserbazio-helburuak, jarraipen-programa bat eta alde arauemailea (1/2014 Legegintzako Dekretuaren 22.4 artikulua eta 22.5 artikulua lehen paragrafoan jasota; eta, bestetik, foru-organismoen eskumena dago; horren bitartez, kudeaketa-jarraibideak onartzen dituzte, Eusko Jaurlaritzak ezarritako kontserbazio-helburuak oinarri hartuta, eta honako hauek jasoko dituzte: eremuak kontserbazio-egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak (1/2014 Legegintzako Dekretuaren 22.5 artikulua bigarren paragrafoan.) Dokumentu biak elkarrekin argitaratu beharko dira EHAAn. Horregatik, administrazio bien arteko lankidetzak garatu behar dira, emaitzak helbururako koherenteak eta eraginkorrak izateko, eta, aldi berean, herri partaidetza behar bezalakoa izatea ahalbidetzeko.

Horregatik, 8/2003 Legearen 7.1 artikuluan ezarritakoarekin bat honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Arkamu-Gibillo-Arrastaria /Arkamo-Gibijo-Arrastaria” (ES2110004) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Gorobel Mendilerroa / Sierra Salvada (ES0000244) Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) horiei dagozkien araudia eta kontserbazio-helburuak jasotzen dituen dokumentuari aldez aurreko onespena ematea.

Bigarrena.- Prozedura izapidetzen jarraitzea, eta Agindu hau Arabako Foru Aldundira bidaltzea, espediente osoaren kopiarekin batera; horrela, proiektu honetan ezarritako kontserbazio-helburuen baitan, 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 22.5 artikulua bigarren paragrafoak aipatzen dituen kudeaketa-jarraibideak egiteari ekin diezaion.

Hirugarrena.- Bi administrazioen arteko lankidetzaren sustatzen jarraitu beharko da, dokumentuen behar bezalako ezarpena egiteko; horrela, posible bada, dokumentu osoaren baterako informazio publikoko izapidea egingo da, hau da, Eusko Jaurlaritzaren zatia eta Arabako Foru Aldundiaren zatia batera.

Vitoria-Gasteizen,

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUA

Izpta: ANA OREGI BASTARRIKA